

BERRI TXARRAK

Berri Txarrak Lekunberrin, Nafarroan, 1994an sortutako rock estiloko musika taldea da.

Hasieran taldearen partaideak hauek ziren: Aitor Goikoetxea, Aitor Oreja eta Mikel López. Gero taldeko partaideak hauek izan ziren: Gorka Urbizu, David González eta Galder Izagirre. Gorka Urbizuk abesten eta gitarra jotzen zuen. David Gonzalezek baxua jotzen zuen eta Galder Izagirrek bateria jotzen zuen.

Taldeak 2019an etenaldi mugagabea iragarri zuen.

12 disko , bilduma-lan bat eta dokumental bat argitaratuak ditu. 25 urtez, bere entzuleria zabala ezustean harrapatzen eta etengabe bide berriak irekitzen aritu da.

Berri Txarrak taldeak Adarra saria irabazi zuen.

Hauek dira beraien kantu ospetsuak:Katedral bat, Infrasoinuak, Maravillas eta Ikusi arte.



Kanta:

Katedral bat letra:

<https://www.youtube.com/watch?v=cXWjWzeNtO8>

Gitarra astindu

Eta ikusi kanturik baduen hor nonbait ezkutuan

Behatzak bihurritu

Ea norbaitek ahaztua duen akorde minorren bat

Eta min eman arte zure falta izan

Ez da musa hoberik

Katedral bat egin hegalik gabe sortu ziren

Abesti pusketekin

Bertako beiratetik sartzen diren eguzki izpien

Energiaz berrekin

Eta min eman arte zure falta izan

Ez da musa hoberik

Ikasitakoa desikasten ikasi

Ahaztutakoa ahaztu eta aurrera egin

"Irakurtzea da bestela idaztea"

Paperak aitortzen dit

"Kantatu besterik ez nuen egin nahi"

Erantzuten diot nik

Neure ahotsa bilatu, beti besteena entzun

Loa kentzen didanari ekintzekin erantzun

Lagunarteko uneak luzarazi

Maitasuna egin maite dugunekin

Carpe noctem!

Eta min eman arte zure falta izan

Ez da musa hoberik

Bihotzen artean parkour egitean erori

Baina beti zutik erori

Gitarra laztandu barruan kanturik baduen...

Egileak: Aimar Lizasoain eta Mikel Etxabarri